



EBAZPENA, 2011ko otsailaren 21ekoa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren kideak izendatzeko.

Euskararen Aholku Batzordearen urriaren 16ko 176/2007 Dekretuak euskararen alorrean administrazioaren aholkulari den organo horren araubide juridikoa finkatzen du eta, besteak beste, horren osaera zehazten du.

Horrela, 176/2007 Dekretuaren hamabosgarren artikulua Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren osaera eta iraupena arautzen ditu. Horren arabera, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko ditu dekretuaren 15.1 artikuluko c) idazatian aipatzen diren kideak, eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideekin batera utziko dute kargua, haien kargualdia bukatzean.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.- Toponimiako Batzorde-atal Bereziaren kideen izendapena egitea.

Hauek dira 176/2007 Dekretuaren 15.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera izendaturiko kideak:

- Alfonso Sanz Araujo jauna, Eusko Jaurlaritzan kartografiaren gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkaria.
- Jose Ignacio Pariente de Prada jauna, Eusko Jaurlaritzan toki-administrazioaren araubidearen gaiaren gaineko eskumena duen saileko ordezkaria.
- Román Berriozabal Azpitarte jauna, Arabako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Joseba Urzelai Agirre jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria.
- M^a Luisa Etxeberria Rekondo andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria.
- Iratxe Lasa Arana andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen elkarteko ordezkaria.
- Oihana Mitxelena Hoyos andrea, Instituto Geográfico Nazionaleko erakundearen ordezkaria.
- Mikel Gorrotxategi Nieto jauna, Euskaltzaindiko ordezkaria.

Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta toponimiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutako kideak:

- Mikel Belasko Ortega jauna.
- Joseba Erkizia Itoitz jauna.
- Patxi Galé Garcia jauna.
- Céline Mounole Hiriart-Urruty andrea.
- Nerea Mujika Ulazia andrea.
- Endika Urtaran Motos jauna.

Bigarren artikulua.- Ebazpen honek izenpetzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 21a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
LURDES AUZMENDI AIERBE
Hizkuntza Politikarako Sailordea
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística